

æek
22.korrika

2. ALBISTEA

2021/12/16



A2

MAILA

**Kalean da
22. KORRIKA-kanta!**

Nerea Urbizu, Ane Garcia eta Anariren eskutik dator!

HITZAREN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Kalean da 22. KORRIKA-kanta: HitzEkin

FITXA TEKNIKOA:

Zuzendari artistikoa eta

musika: Nerea Urbizu

Kantariak: Nerea Urbizu, Ane Garcia, Anari

Letra: Sustrai Colina

Musikariak:

Ander Zulaika: bateria

Itsaso Etxebeste: baxua

Eñaut Gaztañaga: gitarrak

Nerea Urbizu: pianoa

► **Adi irakurri, eta hiru datu faltsu topatuko dituzu:**

Nerea Urbizu Ruiz (Lekunberri, 1950)

Berrogehita bi urte ditu, musikaria da, eta, Urko Oskozekin, *Ene Kantak* proiektua sortu zuen¹: umeentzako² musika, dantza (koreografiak), eta ikuskizunak³ egiten (1). 2011n egin zuten lehen diskoa, eta jada⁴ bederatzi lan argitaratu⁵ dute. Nerea Katamalo folk- eta pop-taldean ere aritu zen, Gorka Urbizu (*Berri Txarrak*) nebarekin, eta bi disko kaleratu zituzten. 2020. urtean, (2) *Naizen* elkartearen abestia sortu zuen, hango gazte eta gurasoekin batera. Bera da 22. KORRIKAREN kantaren sortzaile⁶ eta zuzendari⁷ artistikoa. Ahotsa⁸ ere⁹ jarri dio kantari.

Ane Garcia Lopez (Hondarribia, 1994)

Itzultzaile¹⁰ eta abeslari



Irudia (AEK): Anari, Nerea eta Ane (musikari eta abeslariak)

lapurtarra da. *Lurra* musika-taldeko abeslaria izan (3), 2011-2017 artean¹¹. Pop-, reggae- eta ska-doinuak egin zituzten; ibilbidean bi disko atera zituzten. (4) ahotsa jarri dio 22. KORRIKAREN kantari.

Anari (Ana Rita Alberdi Santesteban; Azkoitia, 1970)

Musikaria da. 1997an hasi zen musika-munduan, *Negu Gorriak* taldearekin, eta jada sei disko argitaratu (5); bost bakarka¹², eta bat *Petti* musikari nafarrarekin. Doinu¹³ goibel¹⁴ eta bakartiak¹⁵ erabiltzen ditu. Batzuek *Euskal PJ Harvey* esaten (6). 2018an, Adarra Saria¹⁶ eman zioten (Donostiako Udalaren saria, euskal musikan egindako ibilbide artistikoak omentzeko sortua); lehen emakumea izan da sari hori irabazten. Ahotsa jarri (7) 22. KORRIKAREN kantari.

Sustrai Colina Akordarrementeria (Urruña, 1982)

Bertsolaria, bertso-irakaslea eta kazetaria da. Hitzak jarri (8) 22. KORRIKAREN kantari.

Hiztegitxoa:

1. sortu zuen: *creó; a créé*
2. umeentzako: *para niños/as; pour les enfants/files*
3. ikuskizunak: *espectáculos; spectacles*
4. jada: *ya; déjà*
5. argitaratu: *publicar; publier*
6. sortzaile: *creador/a; créateur, compositeur*
7. zuzendari: *director/a; directeur, réalisateur*
8. ahots: *voz; voix*
9. ere: *también; aussi*
10. itzultzaile: *traductor/a; traducteur*
11. artean: *entre; entre*
12. bakarka: *en solitario; en solo*
13. doinu: *melodía; mélodie*
14. goibel: *melancólico/a; mélancolique*
15. bakarti: *solitarios/as; solitaire*
16. saria: *premio; prix*

► **Azpirarra itzazu forma egokiak:**



- | | |
|-----------------------------|----------------------|
| 1. dituzte / dute / diote | 5. da / diot / ditu |
| 2. Nerea / Nereak / Nereari | 6. diote / da / zaio |
| 3. da / du / dio | 7. dio / da / du |
| 4. Aneek / Ane / Anek | 8. dio / dizkio / du |

HitzEkin (kanta)

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...

Oinetakoak¹ lotu
(e)ta utzi oinei libre,
belarretan ortozik²
bilakatzen³ bide.
Mapetatik harago⁴,
mundu asko dago.
Sentitutakoa...
Sentitu (e)ta hitz ekin.

(E)ta berriro egin
Korrika zurekin,
arantzak⁵ erauzteko⁶ elkarren ederrez.
(E)ta berriro egin
mundua zurekin...

Euripean⁷ kantari
ibiltzen ikasi;
ez egon atertu⁸ zain⁹
(e)ta korrika hasi.
Berdin da non hasten den, orain beti da hemen.
Pentsatutakoa...
Pentsatu (e)ta hitz ekin.

(E)ta berriro egin
Korrika zurekin
arantzak erauzteko elkarren ederrez.
(E)ta berriro egin
mundua zurekin
beti baitago norbait hitz ekiteko¹⁰ prest.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin....

Neguko eguzkitan
erantzi¹¹ azala;
beti ziur¹² dagonak
duda sor dezala¹³.
Bizitza jendea da (e)ta jendea gara.
Sentitu, pentsatu...
Sentitu, pentsatu, hitz ekin.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...
Zurekin... Hitz ekin, zurekin...

æk
22.korrika

HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Hiztegitxoa:

1. Oinetakoak: calzado; *chaussure*
2. Ortozik: descalzo/a; *pieds nus*
3. Bilakatzen: convirtiéndose; *devenir*
4. Harago: más allá; *au delà (des cartes)*
5. Arantzak: espinas; *les épines*
6. Erauzteko: para sacar; *pour arracher, pour ôter*
7. Euripean: bajo la lluvia; *sous la pluie*
8. Atertu: dejar de llover; *arrêter de pleuvoir*
9. Zain: esperando; *dans l'attente de*
10. Ekiteko: para empezar a hacer; *pour commencer (à parler)*
11. Erantzi: desnudar(se); *(se) dénuder, ôter*
12. Ziur: seguro/a; *sûr,-e, certain*
13. Sor dezala: que cree duda; *qui crée doute*

**Gustatu zaizu kanta?
Eta bideklipa?**

- Bai, (izugarri) gustatu zait.
- Bai, baina...
- Ez, ez zait gehiegi gustatu.
- Ez dakit zer esan.
- Nire ustez, ...

**Nerea Urbizu Ruiz****Anari
(Ana Rita Alberdi)****Ane Gartzia Lopez****Sustrai Colina
Akordarrementeria**

PROZEDURA:

- ▶ Korrika-kantarik ezagutzen ote duten galdetuko dugu. Ezagutzen badute, kanta dezatela gogoratzen duten zatiren bat...
- ▶ Aurtengo kanta jada aurkeztu dela esan, eta bideoklipa¹ ikusiko dugu eskolan.
- ▶ Zer iruditu zaien komentatu, eta utziko diegu kantariez eta bideoklipetan agertutako pertsonenez zer dakiten esaten (besteak beste, aktore hauek agertzen dira: Ramon Agirre eta Itziar Ituño). Kantaren itzulpena 5. orrialdean dago.

BIDEOKLIPARI BURUZKO AZALPENAK:

Bideoklipak KORRIKA egiteko motibo eta modu ezberdinak daudela irudikatzen du. Jendartearen gaur egungo errealitate desberdinak "KORRIKA egiten" azaltzen dira, eta bertan, **amaiera moduan, jendea batuta euskararen aldeko KORRIKAn, hitz ekiteko** prest.

KANTARI BURUZKO AZALPENAK:

Garai zoro hau oso presente izan duen abestia da. Ikuspegi baikor eta ausarta dauka. Hiru adin desberdineko emakumeek abestua da, baina hirurak ere gure helduen eta gure txikien arteko sostengu, bitartekari, mezulari. Kantu honetan kate horren oinarriak abesten dio herriari. Era berean hainbat interpretaziorako bidea ematen du, irekia da. Ekiteko giltza asko ditu.

- ▶ Kantarien biografiak irakurri, eta bi kontu egin beharko dituzte (2. or.): batetik, hiru datu faltsuak topatu beharko dituzte; bestetik, ariketa egin.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):**HIRU DATU FALTSUAK:**

1. Nerea Urbizu Ruiz ez zen 1950. urtean jaio, **1980an** baizik.
2. Ane Garcia Lopez ez da lapurtarra, **gipuzkoarra** baizik, Hondarribikoa.
3. Anari **ez zen hasi *Negu Gorriak* taldearekin**, bakarka baizik.

HUTSUNEAK:

- | | |
|------------------------------------|-----------------------------|
| 1. dituzte / dute / diote | 5. da / diot / ditu |
| 2. Nerea / Nereak / Nereari | 6. diote / da / zaio |
| 3. da / du / dio | 7. dio / da / du |
| 4. Aneek / Ane / Anek | 8. dio / dizkio / du |

- ▶ Kanta berriro entzungo dugu eta, entzun bitartean, irakurri eta kantatzera ere gonbidatuko ditugu; ondoren, erronka botako dugu: ea zeinek ikasten duen buruz aurtengo kanta!
- ▶ Solasaldia egingo dugu²: zein KORRIKA-kanta gustatzen zaien gehien, zein musika-estilo duten gustuko, euskal musika entzuten ote duten, zein euskal musikari edo talde duten gogoko...
- ▶ Badok.eus ezagutzen ez badute, gunea aurkezteko aprobetxa dezakegu unea.

Oharra: KORRIKA-kantei buruzko galderak "KORRIKAn ibilbidea 2022" jolasean topatuko dituzue. Halere, nahi izanez gero, hemen dituzue edizio guztietako Korrika-kantak:

<https://www.argia.eus/albisteak/korrika-abesti-guztien-bilduma>

¹ Ikusteko, jo hona: <https://www.youtube.com/watch?v=nNAsgjgmHIk&t=3s> (22. KORRIKA-kanta)

² Solasaldia egiten laguntzeko, ikusi "2 albisteak TITULARRAK.odp" dokumentua, pantaila handian ikusteko pentsatua. Aurkezpen moduan ikusiz gero, titularrak "efektuekin" ikusiko ditugu. Bestela, "2 albisteak TITULARRAK.pdf" ere eskura duzue, nahiago izanez gero.

EUSKARAZ:**HitzEkin**

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...

Oinetakoak lotu (e)ta utzi oinei libre,
belarretan ortozik bilakatzen bide.
Mapetatik harago, mundu asko dago.
Sentitutakoa, sentitu (e)ta hitz ekin.

**(E)ta berriro egin Korrika zurekin,
arantzak erauzteko elkarren ederrez.
(E)ta berriro egin mundua zurekin...**

Euripean kantari ibiltzen ikasi;
ez egon aertu zain (e)ta korrika hasi.
Berdin da non hasten den, orain beti da hemen.
Pentsatutakoa, pentsatu (e)ta hitz ekin.

**(E)ta berriro egin Korrika zurekin,
arantzak erauzteko elkarren ederrez.
(E)ta berriro egin mundua zurekin
beti baitago norbait hitz ekiteko prest.**

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin....

Neguko eguzkitan erantzi azala;
beti ziur dagonak duda sor dezala.
Bizitza jendea da (e)ta jendea gara.
Sentitu, pentsatu... Sentitu, pentsatu, hitz ekin.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...
Zurekin... Hitz ekin, zurekin...

æk
22.korrika

HITZ EGIN

GAZTELANIAZ:**Palabra y acción**

Palabra y acción, palabra y acción, palabra y acción, palabra y acción...

Átate los zapatos, y deja libres los pies,
que descalzos en la hierba se vuelvan camino.
Más allá de los mapas, hay mucho mundo,
a partir de lo sentido, siente, habla y actúa.

**Y correr de nuevo contigo;
para arrancarnos las espinas
por virtud de nuestra mutua belleza.
Y de nuevo crear el mundo contigo...**

Aprender a andar cantando bajo la lluvia
no esperes a que escampe, empieza a correr.
Da igual dónde se empiece, ahora siempre es aquí.
A partir de lo pensado, piensa, habla y actúa.

**Y correr de nuevo contigo;
para arrancarnos las espinas
por virtud de nuestra mutua belleza.
Y de nuevo crear el mundo contigo, pues
siempre hay alguien dispuesto a actuar
hablando.**

Palabra y acción, palabra y acción, palabra y acción, palabra y acción...

Al sol del invierno, quítate la piel;
que quien siempre está seguro genere una duda.
La vida es gente, y somos gente.
Siente, piensa... isiente, piensa, habla y actúa!

Hablar y actuar, hablar y actuar, hablar y actuar;
contigo...

Hablar y actuar, hablar y actuar, hablar y actuar;
contigo... Hablar y actuar.

FITXA TEKNIKOA

Korrikaren edizioa: 22
(2022)

Izenburua: HitzEkin

Hitzak: Sustrai Colina

Musika: Nerea Urbizu

Abeslariak: Ane Garcia,
Anari, Nerea Urbizu

Musikariak:

-Ander Zulaika: bateria

-Itsaso Etxebeste: baxua

-Eñaut Gaztañaga:
gitarrak

-Nerea Urbizu: pianoa

Grabaketa-estudioa:

Gaztain estudioa (Zestoa)

Nahasketa eta

masterizazioa: Eñaut

Gaztañaga

Bideokliparen ekoizlea:

Eymard Uberetagoena

Aktoreak: Ainara Unanua,

Ramon Agirre, Itziar Ituño